



OSOKO BILKURAREN AKTA

SAIOAREN DATUAK	
Kide anitzeko organoa:	Osoko Bilkura
Deialdi-mota:	Ezohikoa
Data:	2023ko ekainaren 22a
Iraupena:	19:16tik 19:58ra
Lekua:	Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa
Udalburutza:	Unai Gutierrez Urkiza
Idazkaritza:	Oiartza Urquijo Alaña
SAIORA BERTARATZEA	
ALKATE-UDALBURUA	BERTARATU DA
UNAI GUTIERREZ URKIZA	BAI
ZINEGOTZIAK	BERTARATU DIRA
CRISTINA LARRAZABAL IBAÑEZ DE ELEJALDE	BAI
AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA	BAI
MARIA INMACULADA ELORZA BERGARA	BAI
MARIA ELENA URCELAY ALTUNA	BAI
NEREA IDIGORAS LASAGA	BAI
MARIELA BARAÑANO GOIRIZELAIA	BAI
ALBERTO RUIZ DE OLANO APODACA	EZ
ANDER BARANDICA SANTOS	BAI
ALVARO RUIZ OTXOA DE ERIBE	BAI
ANDRES LAFUENTE OTXOA	BAI



Murgian, 2023ko ekainaren 22an, 19:16ak direnean, aurretik legearen arabera deialdia eginda, Bilkura egin da Udaletxeko Administrazio Bulegoetan. Behean zerrendatzen diren zinegotzi jaun-andreak bildu dira, Unai Gutierrez Urkiza alkate jaunak zuzendu du bilkura, eta Oiartzua Urquijo Alaña andreak Udaltzako idazkari lanak egin ditu.

Idazkariak kide anitzeko organoa behar bezala eratu dela egiaztatu ondoren, udalburuak bilkurari hasiera eman, eta gai-zerrendako gaiak eztabaidatu da.

1.- AURREKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

IKUSITA Udala eratzeko 2023ko ekainaren 17ko bilkuraren akta, Udaltzako aho batez erabaki du akta hori onartzea.

2.- TALDE POLITIKOEN ETA HORIEN KIDEEN, BOZERAMAILEEN ETA ORDEZKOEN ERAKETA EZAGUTZEA.

ALKATE-UDALBURUAK hartu du hitza, eta, *AJAren 23.etik 29.era bitarteko artikuluen arabera (2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakunde Antolamenduari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamendua onartzen duena), Auzitegi Gorenaren 1988ko maiatzaren 20ko epaiaren arabera, Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiaren 2010eko urtarrilaren 21eko epaiari jarraiki eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 34. artikulua betez, idazkariari eman dio hitza, eraturako udal-taldeen eta/edo talde politiko, horien kideen, bozeramaileen eta ordezkoren berri emateko:*

1.- EHBildu Zuia:

- | | |
|--|--------------|
| — Unai Gutierrez Urkiza | Bozeramailea |
| — Cristina Larrazabal Ibañez de Elejalde | |
| — Agustin Otsoa Eribeko Landa | |
| — Inma Elorza Bergara | Ordezkoa |
| — Elena Urzelai Altuna | |



— Nerea Idigoras Lasaga

2.- EAJ-PNV ZUIA:

— Mariela Barañano Goirizelaia

Bozeramailea

— Alberto Ruiz de Olano

Ordezkoa

— Ander Barandica Santos

— Alvaro Ruiz Otxoa de Eribe

3.- Zuiak Batzen Gaitu- Zuia Nos Une (ZBG)

— ANDRES LAFUENTE OTXOA

Bozeramailea

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

3.- OSOKO BILKUREN ALDIZKAKOTASUNA ONARTZEA.

ALKATE-UDALBURUAK hartu du hitza, eta, *AJAren 78.1 artikulua*ren arabera (2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Araudia onartzen duena) eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1 eta 46.2.a artikuluei jarraiki osoko bilkuren aldizkakotasuna ezartzeko bozketa egin behar dela adierazi du.

Hileroko aldizkakotasunari eustea eta Osoko Ohiko Bilkurak hilabete bakoitzeko bigarren ostegunerako ezartzea proposatu da, abuztuan izan ezik, 19:15ean Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan.

AZTERTUTA proposamena, eta Udalbatzako kideek gaia eztabaidatuta, Osoko Bilkurara bertaratutako kide guztiak (11 zinegotzitatik 10) ados azaldu dira aho batez, eta beraz, aldeko botoa eman dute guztiek, hau da, EH BILDU (6), EAJ-PNV (4) eta ZBG-ZNU (1). Hartara, Udalbatzak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA. - Osoko ohiko bilkuren aldizkakotasuna onartzea, eta horiek hilabete bakoitzeko bigarren ostegunean, 19:15ean, ezartzea, abuztuan izan ezik.



BIGARRENA. - ALKATE-UDALBURU jaunari, edo legearen arabera bere ordezkari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko beharrezkoak diren egintzak buru ditzan udalaren izenean eta ordezkarietan.

4.- INFORMAZIO BATZORDE IRAUNKORREN SORRERA, OSAERA ETA LEHENDAKARITZA ONARTZEA.

ALKATE-UDALBURUAK hartu du hitza, eta, *Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 20. eta 116. artikuluetan eta AJAren 123-127. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz (2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudia onartzen duena), proposatu du egungo batzordeekin jarraitzea, eta udalbatzako kide guztiak batzorde horietako kide izatea aldizkakotasun berarekin, Osoko Bilkurako Gaietarako Informazio Batzordea izan ezik, eta, gainera, lantaldeekin jarraitzea proposatu du, azken horiek kide anitzeko organoak ez direla azpimarratuz.*

AZTERTUTA proposamena, eta Udalbatzako kideek gaia eztabaidatuta, Osoko Bilkurara bertaratutako kide guztiak (11 zinegotzitatik 10) ados azaldu dira aho batez, eta beraz, aldeko botoa eman dute guztiek, hau da, EH BILDU (6), EAJ-PNV (4) eta ZBG-ZNU (1). Hartara, Udalbatzak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA - "Gai Orokorren Informazio Batzordea" izeneko ondoren Informazio Batzorde Iraunkorrek eratzea, batzorde horien helburua kontu guztiak (aurrekontukoak eta aurrekontuz kanpokoak), ekonomia eta ogasuna, hirigintza eta gai orokorrak (berdintasuna, euskara, kultura...) aztertzea, horiei buruzko txostenak egitea eta kontsulta egitea izanik, eta "Osoko Bilkurako gaien Informazio Batzordea" ere eratzea, azken horren helburua Osoko Bilkurara aurkezten diren gaiak aztertzea, horiei buruzko txostenak egitea eta kontsultak egitea delarik. Bestalde, nahitaezko Kontuen Batzorde Bereziari dagozkion eginkizunak batzorde horren esku utziko dira.



BIGARRENA. – Gai Orokorren Informazio Batzordea honako hauek osatuko dute:

Lehendakaria: ALKATE-UDALBURUA edo hark eskuordetutako zinegotzia.

Batzordekideak:

EHBildu Zuia udal taldearen ordezkari gisa:

- Cristina Larrazabal Ibañez de Elejalde
- Agustin Otsoa Eribeko Landa
- Inma Elorza Bergara
- Elena Urzelai Altuna
- Nerea Idigoras Lasaga

EAJ-PNV Zuia udal taldearen ordezkari gisa:

- Mariela Barañano Goirizelaia
- Alberto Ruiz de Olano
- Ander Barandica Santos
- Alvaro Ruiz Otxoa de Eribe

ZBG-ZNU udal taldearen ordezkari gisa:

- Andres Lafuente Otxoa

Idazkaritza: Korporazioko idazkaria edo hark eskuordetzen duen funtzionarioa.

HIRUGARRENA. - Osoko Bilkurako Gaietarako Informazio Batzordea honako hauek osatuko dute:

Lehendakaria: ALKATE-UDALBURUA edo hark eskuordetutako zinegotzia.

Batzordekideak:

EHBildu Zuia udal taldearen ordezkari gisa:

- Cristina Larrazabal Ibañez de Elejalde
- Agustin Otsoa Eribeko Landa
- Inma Elorza Bergara



—Elena Urzelai Altuna
—Nerea Idigoras Lasaga

EAJ-PNV Zuia udal taldearen ordezkari gisa:

—Mariela Barañano Goirizelaia
—Alberto Ruiz de Olano
—Ander Barandica Santos
—Alvaro Ruiz Otxoa de Eribe

ZBG-ZNU udal taldearen ordezkari gisa:

— Andres Lafuente Otxoa

Idazkaritza: Korporazioko idazkaria edo hark eskuordetzen duen funtzionarioa.

LAUGARRENA. - Gai Orokorren Informazio Batzordeak eta Osoko Bilkurako Gaien Informazio Batzordeak azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak onartutako Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 123. artikulutik 126.era eta 134. artikulutik 138.era xedatutakoaren arabera jardungo dute.

BOSGARRENA. - Gai Orokorren Informazio Batzordeak hamabost egunean behin egingo ditu ohiko bilerak, oro har, eta salbuespen puntualetan izan ezik, ostiraletan, 08:30ean, salbu eta akordio bidez erabaki bada 08:00etan egingo direla.

SEIGARRENA. - Osoko Bilkurako Gaien Informazio Batzordeak ohiko bilkurak egingo ditu hileroko, Osoko Bilkuraren ohiko bilkuretarako ezarritako ostegunaren aurreko asteartean, 18:00etan.

ZAZPIGARRENA. - Akordio hau udaleko talde politikoei jakinaraztea.

ZORTZIGARRENA. - ALKATE-UDALBURU jaunari, edo legearen arabera bere ordezkari denari, gaitasuna ematea erabaki hau



gauzatzeko beharrezkoak diren egintzak buru ditzan udalaren izenean eta ordezkaritzan.

5.- ALKATETZAK EGOKITZAT JOTZEN DITUEN ALKATEORDEEN ETA GAINERAKO ORDEZKARITZEN IZENDAPENEI BURUZ ALKATETZAK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI IZATEA.

ALKATE-UDALBURUAK hitza hartu du, eta, *Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 26. Artikulua*ren, *Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.2 eta 23. artikuluen eta Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 41.3 eta 46. artikuluen arabera emandako 2023ko ekainaren 22ko 201/2023 Alkatetza Dekretuaren berri eman du. Horren bidez, alkateorde izendatzen dira, honako ordena honen arabera:*

1. alkateordea: Agustin Otsoa Eribeko Landa
2. alkateordea: Inma Elorza Bergara
3. alkateordea: Cristina Larrazabal Ibañez de Elejalde

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

6.- KORPORAZIOKO KIDEEEN DEDIKAZIOAK ETA DEDIKAZIOA DUTEN KARGUEN ORDAINSARIEN ARAUBIDEA ONARTZEA.

ALKATE-UDALBURUAK hartu du hitza, eta honakoa proposatu du: Alkatetzaren % 73ko dedikazio partzialari eustea, 2023ko aurrekontuan aurreikusitako 14 ordainsaritan banatutako urteko ordainsari gordinarekin: 37.066,41 euro (Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean 2023rako aurreikusitako % 2,5eko igoera barne); INMACULADA ELORZA BERGARA zinegotziaren % 50eko dedikazio partzialari eustea, 2023ko aurrekontuan aurreikusitako 14 ordainsaritan banatutako urteko ordainsari gordinarekin: 15.522,30 euro (2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean aurreikusitako % 2,5eko igoera barne); eta DORLETA MARTINEZ DE ALBENIZ PEREZ zinegotziak orain arte jasotzen zuen % 20ko dedikazio



partzialari eustea, 2023ko aurrekontuan aurreikusitako urteko ordainsari gordinarekin: 6.391,50 euro (2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean aurreikusitako % 2,5eko igoera barne). Azken horren titulartasuna oraindik zehazteke dago, eta ALKATE-UDALBURUAK adierazi du Osoko Bilkuran hartuko dela, hurrengo bilkura batean.

ALKATE-UDALBURUAK esan du INMACULADA ELORZA BERGARA zinegotziak hainbat arlo kudeatzen dituela: Komunikazioa, Berdintasuna, Musika Eskola eta Kultur Agendaren Koordinazioa (Kultura, Euskara eta Berdintasuna).

Era berean, esan du komenigarritzat jotzen dela lanaldi partziala beste zinegotzi baten % 20an mantentzea hainbat arlo kudeatzeko, hala nola langileen kudeaketaren zati bat (fitxaketak), hezkuntza eta kirola.

AZTERTUTA proposamena, eta Udalbatzako kideek gaia eztabaidatuta, Osoko Bilkurara bertaratutako kide guztiak (11 zinegotzitatik 10) ados azaldu dira aho batez, eta beraz, aldeko botoa eman dute guztiek, hau da, EH BILDU (6), ZUIA BAI (4) eta ZBG-ZNU (1). Hartara, Udalbatzak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA. - Lanaldi eta dedikazio hauek onartzea:

Alkatetza, UNAI GUTIERREZ URKIZA, % 73an, urteko ordainsari gordina 14 ordainsaritan banatuta (2023ko aurrekontuan aurreikusita dago) 37.066,41 eurokoa izanik (2023ko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean aurreikusitako % 2,5eko igoera barne)

Zinegotzigoa, INMACULADA ELORZA BERGARA, % 50ean, urteko ordainsari gordina 14 ordainsaritan banatuta (2023ko aurrekontuan aurreikusita dago) 15.522,30 eurokoa izanik (2023ko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean aurreikusitako % 2,5eko igoera barne).

BIGARRENA. - ALKATE-UDALBURU jaunari, edo legearen arabera bere ordeaz ari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko



beharrezkoak diren egintzak buru ditzan udalaren izenean eta ordezkaritzan.

7.- UDALBATZAREN ORDAINSARIEN ARAUBIDEA ONARTZEA, OSOKO BILKURETARA ETA INFORMAZIO BATZORDE IRAUNKORRETARA JOATEAGATIK.

ALKATE-UDALBURUAK hitza hartu, eta osoko bilkuretara eta informazio-batzorde iraunkorretara joateagatik udalbatzaren ordainsarien araubide berari eustea proposatu du, bai eta talde politikoen urteko zuzkidura ekonomikoari eustea ere.

Talde politikoen urteko diru-hornidura dela-eta esan du korporazio honetan osagai finko bat egongo dela, talde guztientzat berdina, eta beste osagai aldakor bat, talde bakoitzeko kide-kopuruaren arabera, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeetan oro har ezartzen diren mugen barruan. 2023. urterako esleipen ekonomikoa honako hau izango da:

1. Osagai finkoa: 75 euro/zinegotzi/hiruhileko
2. Osagai aldakorra: talde politiko bakoitzeko zinegotzi-kopurua

Korporazioko kideak bertaratzeagatiko dietei dagokienez, azpimarratu du Korporazioko gainerako kideek jasoko dituztela, lanaldi partzialeko dedikazioa duten kideak izan ezik, horiek jasoko baitituzte, eta honakoa gaineratu du:

1. Osoko bilkuretara joateagatik, 50 euro.
2. Kide anitzeko beste organo batzuetara (Gobernu Batzordea, Informazio Batzordeak, bilerak edo karguaren ondoriozko jarduerak) joateagatik, 41,86 euro, eta dedikazioa edo bilera 3 ordutik gorakoa bada, 66,54 euro.

AZTERTUTA proposamena, eta Udalbatzako kideek gaia eztabaidatuta, Osoko Bilkurara bertaratutako kide guztiak (11



zinegotzitatik 10) ados azaldu dira aho batez, eta beraz, aldeko botoa eman dute guztiek, hau da, EH BILDU (6), ZUIA BAI (4) eta ZBG-ZNU (1). Hartara, Udalbatzak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA. - Udalbatzaren ordainsarien araubidea onartzea, osoko bilkuretarra eta informazio-batzorde iraunkorretara joateagatik.

BIGARRENA. - ALKATE-UDALBURU jaunari, edo legearen arabera bere ordeaz ari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko beharrezkoak diren egintzak buru ditzan udalaren izenean eta ordezkartzan.

8.- KORPORAZIOAREN ORDEZKARIAK IZENDATZEA BERE ESKUMENEN KIDE ANITZEKO ORGANOETARAKO.

ALKATE-UDALBURUAK hitza hartu, eta udal honek parte hartzen duen kide anitzeko organoen berri eman du, dagozkion izendapenak egiteko.

AZTERTUTA proposamena, eta Udalbatzako kideek gaia eztabaidatuta, Osoko Bilkurara bertaratutako kide guztiak (11 zinegotzitatik 10) ados azaldu dira aho batez, eta beraz, aldeko botoa eman dute guztiek, hau da, EH BILDU (6), EAJ-PNV (4) eta ZBG-ZNU (1). Hartara, Udalbatzak honako hau ERABAKI DU:

1.- GORBEIA INGURUETAKO PARTZUERGOA

Ordezkariek:

- UNAI GUTIERREZ URKIZA (alkatea)
- AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA

Gobernu Batzordeko ordezkaria:

- UNAI GUTIERREZ URKIZA

2.- GORBEIALDEKO KUADRILLAKO BATZARRA



EHBILDU Zuia taldearen ordezkariak (3):

- UNAI GUTIERREZ URKIZA
- AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA
- CRISTINA LARRAZABAL IBAÑEZ DE ELEJALDE

EAJ-PNV Zuia taldearen ordezkariak (2):

- ANDER BARANDICA SANTOS
- ALVARO RUIZ OTXOA DE ERIBE

3.- HAURRESKOLAK PARTZUERGOA

Ordezkarria:

- MARIA ELENA URCELAY ALTUNA

4.- OROKO ANDRE MARIAREN HLHI IKASTETXEKO ETA MURGIAKO BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUKO ESKOLA-KONTSEILUAK

Ordezkarria:

- MARIA ELENA URCELAY ALTUNA

5.- GORBEIAKO PARKE NATURALAREN PATRONATUA:

Ordezkarria:

- AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA

6.- GORBEIALDEKO LANDA GARAPENENKO ELKARTEA:

Ordezkarria:

- NEREA IDIGORAS LASAGA

7.- OROKO ANDRE MARIAREN SANTUTEGIKO ZUZENDARITZA BATZORDEA:

Ordezkarriak:

- UNAI GUTIERREZ URKIZA
- MARIELA BARAÑANO GOIRIZELAIA
- ANDRES LAFUENTE OTXOA



9.- GALDERAK ETA ESKAERAK.

Udalbatzako kideei hitza eman ondoren, ez da ez eskaerarik ez galderarik egin. ALKATE-UDALBURUAK aprobetxatu du hurrengo saioen eta jorratu beharreko gaien berri emateko.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, lehendakari jaunak bilkura amaitutzat eman du 19:58an, eta nik, idazkaria naizen honek, hori guztia egiaztatu dut.

Idazkaritza,